

EUDELEN AGERRALDIA ARABAKO BATZAR NAGUSIETAN:

**“ARABAKO TOKIKO ERAKUNDEEN FINANTZIAZIORAKO FORU FUNTSA
ARAUTZEN DUEN FORU ARAUA ALDATZEKO TXOSTENA”**

Vitoria-Gasteizen, 2013ko uztailaren 11n

AGERTU DIRA:

- Josune Irabien Marigorta andrea, Amurrioko alkatea
- Aitor Abecia Jiménez de Aberasturi jauna, Zambranako alkatea

DOKUMENTUAREN HELBURUA

Lurralde Batzordeak 2013ko uztailaren 3ko bileran egindako gogoeten berri eman nahi da. Batzar Nagusietan eratutako txostenari eransteko asmoz, Arabako Foru Aldundiak prestatu duen *Tokiko Erakundeen Finantziaziorako Foru Funtzen Foru Arauaren proiektuak* duen edukiari buruzkoak dira gogoeta horiek.

AZALPENA

EUDELen Arabako Lurralde Batzordeko kide naizen aldetik, haren ordezkaritzan arituta, eta, era berean, _____(e)ko Udaleko alkate gisa, jarraian, aditzera emango ditut Arabako Foru Aldundiak prestatu duen *Tokiko Erakundeen Finantziaziorako Foru Funtzen Foru Arauaren proiektua* (FOFFEL) aztertu ondoren landu ditugun proposamenak eta atera ditugun ondorioak.

Arabako Tokiko Erakundeen Finantziazorako Foru Funtzen Foru Arauaren proiektuak duen edukiaz eztabaidatzen ari den bitartean, *Tokiko Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna lortzeko Lege Aurreproiektua* (TAILA) prestatzen ari da.

Aurrez pentsa daitekeen moduan, *Aurreproiektu* horretan jasota dauden neurriek ikaragarritzko eragina izango dute tokiko erakundeengan. Adibidez, administrazio-batzarrak eta koadrilak zenbait inguruabarretan desegiteko aukera jasotzen da. Horrez gain, inguruabar batzuetan, Aldundiak bere gain hartu beharko du nahitaezko udal-zerbitzu publikoak egiteko ardura, 20.000 biztanle baino gutxiagoko udaletan. Era berean, zenbait kasutan, udalek ezinbestez ezabatu beharko dituzte haiei ez dagozkien eskumenekin zerikusia duten zerbitzuak. Hala ere, inguruabar horietako batzuk zehazteko eginkizuna geroago aterako dien arauetan finkatuko da, adibidez, udal-zerbitzuak ebaluatzea edo zerbitzuen kostu estandarra zehaztea (kostu hori ez da gainditu behar, tokiko erakundea zerbitzurik eta eskumenik gabe ez uzteko).

Hortaz, *Aurreproiektuan* zehaztutako egoerak **ziurgabetasun** nabarmena sorrarazten du Arabako tokiko erakundeetan. Vitoria-Gasteiz alde batera utzita, *Aurreproiektuaren* arabera, biztanleria-maila aintzat hartuta, gainerako udalerrietan buru-belarri aritu behar da, tokiko administrazioaren antolakuntzako egitura arrazionalizatzeko helburua lortu ahal izateko.

Horiek horrela, Aldundiak *Udal Finantziazorako Foru Arauaren proiektua* aurkeztu du. Gure ustez, Arauaren proiektu hori prestatzean, ez dira kontuan hartu lehen aipatu dugun *Aurreproiektuaren* edukiak eta helburuak. Azken batean, *Arauaren proiektuak* ez du neurririk jaso Arabako tokiko erakundeetan *Tokiko Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna lortzeko Lege Aurreproiektua* ezartzeak izango dituen ondorio larriak nolabait arintzeko.

Oso nabaria da *Foru Arauaren proiektuak* jarraipena emango diela udal-finantziazioak aurrez dituen garrantzizko arlo guztiei. Adibidez, ez dira ezertan aldatuko Arabako tokiko erakundeek lurraldeko baliabide erabilgarrietan duten partaidetzaren ehunekoak (%56 izango da, orain bezala); eta baliabide horiek era berean banatuko dira FOFEL funtsaren eta Lan eta Zerbitzuetako Foru Planaren artean (%52,3 eta %3,7, hurrenez hurren). Gure ustez, araua aldatzean, aukera bikaina galdu da alferrik. Izan ere, aukera ona zegoen tartean sartuta dauden alde guztiek baliabide horiek aski diren eztabaida zezaten lortzeko, baina ez da horrelakorik egin (ez dugu ahaztu behar funts horiek direla udal-aurrekontuen baliabide arrunt nagusia). Era berean, aukera zegoen are interesgarriagoa den beste eztabaida bat proposatzeko, hain zuzen ere, Foru Planari eutsi behar zaion edo foru-planaren zenbatekoa FOFEL funtsaren zenbatekoarekin metatu behar den argitzeko, baina ez da horrelakorik egin.

Egungo egoera ikusita, zaila da banatu beharreko baliabideak aski izango ote diren jakitea, lehen aipatu dugun *Aurreproiektua* ezarriz gero, udalek egin behar dituzten zerbitzu publikoak epe ertainean alda daitezkeelako (ugaltu edo murriztu egin daitezke). Gainera, konponbiderik jarri ezean, litekeena da Aldundiak berak jasotzea Foru Planaren funts gehienak.

Bestalde, mota honetako funtsek baldintzarik izan ez arren, aurkeztu den *Arauaren proiektuak* baldintzatutako ekarpenen bolumena handituko du, eta funtsen zati bat esleitzean, guneetan nahitaez egin behar diren zerbitzuak benetan egin ote diren hartuko du aintzat.

Lehen esan dugunez, hori konpondu ezean, litekeena da epe ertainean, lehen aipatu dugun *Aurreproiektua* ezartzearen ondorioz, Aldundiak berak eskuratzea *oinarrizko partaidetzaren* bidez banatzen diren funtsen zati handi bat. Hala ere, udalek aurre egin beharko diote Aldundiak bere gain hartutako zerbitzuei dagozkien gastuen zati handi bati; adibidez, lehendik formalizatutako maileguei

edo azpiegituren amortizazioei. Jakina, baliabide gutxiago izango dute hori egiteko.

Orain arte adierazitakoa kontuan izanik, *Udalen Finantziazorako Foru Arauaren proiektuaren* aurkezpena **desegokitzat** jo dezakegu, besterik ezean. Hala ere, azkenean erabaki dugu geure proposamenak egin behar ditugula hemen, Aldundiak egindako lanari diogun zintzotasunagatik.

Nolanahi ere, *Arauaren proiektuan*, aipatzeko moduko berrikuntza batzuk sumatu ditugu. Dena dela, berrikuntza horiek ez dute ondorio onik izango udal-kontuetan. Kontrakoa. Berrikuntza horien artean, ondoko bi hauek nabarmendu behar ditugu, duten garrantzia dela-eta:

- Alde batetik, Vitoria-Gasteizko finantziarioa jasotzeko modu desberdina dugu. Izan ere, praktikan, hiria “eredutik” aterako da, eta diru-hornidurako ehuneko finko bat emango zaio (%74,6). Horrez gain, beste ehuneko bat jasoko du, hiriburua izateagatik (%1,4), eta, indarrean dagoen FOFEL funtsean bezalaxe, horri eskualdatutako Gizarte Ongizateko zerbitzuen ordainketa gehitu behar zaio. Gure ustez, ez du merezi gogoeta berezirik egitea azaldutako berrikuntzaren inguruan. Izan ere, uste izatekoa denez, ehunekoak horrela finkatu dira, Vitoria-Gasteizko partaidetza gaur egun duen maila berean edo antzeko maila batean egon dadin.
- Bestetik, 2013. urtean, udalek ezinbestez hartu beharko dituzte beren gain uraren ziklo osoari eta Administrazio Batzarren argiteria publikoari lotuta dauden zerbitzuak egiteko eskumenak. Zalantzarik gabe, neurri horrek ondorio txarrak izango ditu udalen aurrekontuaren orekari begira.

Puntu honetara iritsita, sortu den ziurgabetasuna ikusita, eta aurkeztu den *Arauaren proiektuak* duen edukiak ziurgabetasuna arintzeko ez duela balio aintzat hartuta, nabaria da Lurralde Batzorde honek ezin duela garrantzizko ekarpenik egin, proposatutako testua hobetzeko, eta, era horretan, Arabako tokiko erakundeen etorkizunari buruz ditugun kezkak desagerrarazteko. Izan ere, gure iritziz, galdera asko dago erantzun gabe, Aldundiak kontu asko argitu behar ditu proposatutako *proiektuari* dagokionez.

Adibidez, hauek:

- 19/97 Foru Arauak urte asko eman ditu ezertan aldatu gabe, eta arlo nagusietan, behintzat, banaketa egiteko ereduari eutsi zaio, aldaketa gutxi eginda. Horiek horrela, Foru Aldundiaren ustez, egon den aukeraz baliatu da Arabako tokiko erakundeek aurrez aurre duten errealitateari egokitzen zaion araua idazteko?
- *Foru Arau* berria lagungarria da toki-eskumeneko jarduerak eta zerbitzu publikoak era egokian finantzatzeko?
- Aldundiak berak azterketaren bat egin du sakon ikertzeko Arabako tokiko erakundeek Lurralde Historikoko Baliabide Erabilgarrietan duten partaidetzak, orain arte bezala, %52,3 (FOFFEL funtsean) eta %3,7 (Lan eta Zerbitzuen Foru Planean) izan behar duen jakiteko? Zergatik uste da ehuneko horiek ez direla aski?

Gure iritziz, Lan eta Zerbitzuen Foru Plana FOFEL funtsaren banaketan sartuz gero, Foru Aldundiak laguntza eman beharko luke lurraldean gizarte-kohesioa lortzeko, eta, ildo horretan, aurrekontuetako diru-hornidura bat bideratu beharko luke udal txikiaren azpiegiturarako. Izan ere, udalik txikiengan, ekonomia aldetik, ia ezinezkoa da garrantzizko lanik egitea, finantziario gehigarriak ez badute.

- Zein neurritan da lagungarria *Foru Arauaren proiektua* tokiko erakundeei bidea errazteko, aurrekontuen egonkortasun, finantzazko iraunkortasun, gardentasun eta arrazionalizazioari buruzko legerian jasota dagoen udaleko jarduera-esparrura egokitu daitezen? Izan ere, legeria hori epe laburrean sartuko da indarrean, honezkero indarrean ez badago. Izan liteke, *Foru Arauaren proiektua* idatzi denean, esparru hori kontuan ez hartzea?
- Dagoen ziurgabetasuna ikusita, ez al zen egokiago izango *Foru Arau* berrian banaketa egiteko irizpide objektiboak sartzea (esate baterako, biztanleak, zerga-arloko ahalegina, langabezia eta dispertsioa), eta, horrez gain, funtzionamenduko eskakizunak saritzea, epe laburrean tokiko erakundeentzat aurreikusten diren kalitate eta eraginkortasuneko arloak aintzat hartuta?
- Kalkulatu du Aldundiak zein eragin izango duen, tokiko erakundeen antolakuntzan eta ekonomian, aurrekontuen egonkortasun eta finantzazko iraunkortasunari buruzko legean jasota dauden oinarriak betetzeak, eta, era berean, zein eragin izango duen erakunde horientzat tokiko administrazioaren gardentasun eta arrazionalizazioari buruzko etorkizuneko legeetan ezartzen diren baldintzak betetzeak edo ez betetzeak? *Foru Arauaren proiektuan* jasota dauden horniduretan, kontuan hartu al da izan daitezkeen gain-kostuen finantziazioa?
- Kalkulatu ditu Aldundiak Administrazio Batzarrek udalei nahitaez eskualdatutako zerbitzuak egiteak sorraraziko dituen kostu handiagoak? Gerta liteke udal horiek FOFEL funtsean jaso behar duten gehikuntza ez izatea nahikoa gastu handiago horiek finantzatu ahal izateko?

Illo horretan, aditzera eman nahi dugu ez gatozela bat udalek eskumen gehiago beren gain hartu behar izatearekin, uraren ziklo osokoari eta argiteria publikoari lotuta dauden zerbitzuak egiteko. Gaur egun, zerbitzu horiek Administrazio Batzarrei dagozkie, eta, beraz, haiek egiten dituzte.

Bestalde, Aldundiak aurkeztutako Foru Arauaren proiektuak eskumenak berriz doitzea proposatzen duela aitzat hartuta, gure iritziz, Aldundiak azterketa ekonomikoa aurkeztu behar du aurrez, eta, azterketa horretan, proposamen horren ondorio ekonomikoak balioetsi behar ditu.

- Izan liteke nahitaezko zerbitzuak egiteko titulartasunean egindako aldaketa nabarmenek finantzazko desorekak sorraraztea, zerbitzu horiek gehiago egingo ez dituzten erakundeetan edo zerbitzu horiek beren gain hartuko dituztenetan? Kalkulatu da eragin hori? Aldundiak ba al du zenbatespenik, beraien aurrekontuak orekatzeko udalek tasetan ordainarazi beharko duten gehikuntzari buruz?
- Aldundiak eskualdatutako Gizarte Ongizateko zerbitzuak direla-eta Vitoria-Gasteiz hiriak duen diru-hornidurari dagokionez, zergatik ordaintzen da oraindik Foru Aldundiaren eskumenekoa den kostu bat tokiko erakundeenak diren baliabideekin?

Lurralde Batzorde honetako kideen ustez, diru-hornidura hori FOFEL funtsaren banaketatik kendu behar da, bai eta etorkizunean eskuz aldatzen diren Foru Aldundiaren beste zerbitzu batzuk finantzatzeko funtsen hornidurak ere. Mota horretako zerbitzuak finantzatzeko, Aldundiak berak duen aurrekontua erabili behar da.

Azalpen honi buru emateko, iruzkin labur batzuk egin nahi ditugu *Foru Arauaren proiektuan* sartuta dauden baina orain arte aipatu ez ditugun beste kontu batzuei buruz.

Lehenik, berriz aipatu behar dugu banaka bereizi behar direla lurralde historikoko udal bakoitzarentzat FEPELen sartuta dauden itzuli gabeko saldoak. Horrenbestez, zenbait irizpide ezarri beharko lirateke udal bakoitzak itzuli gabe

dituen saldoak banaka amortizatzeko, FOFEL funtsa banatzeko irizpide jakin batzuk nahastu beharrik gabe (lehen aipatu dugunez, *Foru Arauaren proiektuak* %74,6 jaso du, eta, horrenbestez, oinarritzko partaidetzen eta partaidetza osagarrien banaketatik kanpo utzi du Vitoria-Gasteiz; aldi berean, %1,4ko hornidura gehigarria jaso du, hiriburua izateagatik, epe jakin batean –2021. urtera arte– zenbateko hori FEPEL funtsaren amortizazioari eskaintzeko).

Bigarrenik, zerga-arloko ahalegina ebaluatzeko irizpidea aldatzea proposatzen dugu. Gaur egun, eta *Arauaren proiektuan*, hauxe baizik ez da aintzat hartzen: zerga-arloko banakako ahaleginaren eta lurralde historikoko zerga-arloko banakako ahaleginen batez besteko kopuruaren arteko erkaketa. Hala ere, beste lurralde batzuetan zerga itunduen zati bat banatzeko irizpidea ezarrita (Gipuzkoako Foru Aldundiak Udal Finantziatorako Foru Funtsaren –FOFFIM– banaketari buruzko azalpenean adierazi zuen moduan), zerga-arloko ahalegina beste era batean kalkulatu litzateke. Alde batetik, udalerri bakoitzak dirua biltzeko duen ahalmenari dagokionez egin duenarekin erkatuta; eta, bestetik, udalerri bakoitzeko egoera hori lurraldeko gainerako udalerrietako egoerarekin erkatuta.

Hirugarrenik, FOFEL funtsa banatzeko irizpideen artean, udalak funts horren FOFELen duen partaidetzaren %0,15 esleitu beharko litzaioke EUDELi.

Arabako Toki Administrazio eta Finantzetako Lurralde Kontseiluak 1997ko otsailaren 24an hartutako akordioaren arabera, Foru Aldundiak Arabako udalen guztizko partaidetzaren 0,15aren parekoa den kopurua ordainaraziko die hala erabaki duten udalei (oinarritzko zatia eta osagarria), EUDELen finantziazio berezi gisa, eta gainerako udalek zuzenean ordainduko diote kopuru hori EUDELi.

Illo horretan, argi nabarmendu behar dugu elkartearen finantziazio-modu hori ondo SENDOTU DELA DENBORAREN PODERIOZ, ez duela batere arazorik

sortu, eta gainerako lurralde historikoetan ez dela zalantzan jarri. Izan ere, behar bezala jasota dago, hala Gipuzkoako foru-arauetan nola Bizkaikoetan.

Horregatik, EUDELe bere eginkizunak betetzen egiten duen lan garrantzitsua aintzat hartuta, eta, batez ere, hainbat instantzia politiko-administratiboren aurrean udalen interes orokorrak ordezkatzan bete duen lana kontuan izanda, bereziki nabarmendu nahi dugu Arabako Toki Administrazio eta Finantzetako Lurralde Kontseiluaren aurrean egin duen ordezkaritza-lana. Hortaz, gure ustez, EUDELen finantziazioa berariaz jaso behar da FOFEL funtsaren Foru Arauan. Ildo horretan, Eusko Legebiltzarrak 2013ko maiatzaren 30eko bilkuran onetsi zuen legez besteko proposamenak duen garrantzia nabarmendu nahi dugu. Proposamen horrek EUDELe egin duen lana onartzen du eta laguntza ematen dio erakundeari. Hala, bada, Eusko Legebiltzarrak eskaera egiten dio Eusko Jaurilaritzari, alde batetik, EUDELen izaera instituzionala sar dezan Eusko Legebiltzarrari bidaliko dion udaleko lege-proiektuan, eta, bestetik, berariaz onar dezan tokiko erakundeek udal-erri-elkarte gisa duen ordezkaritza, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean sustraituen dagoen elkarte baita. Horrez gain, Euskadiko udal-instituzio guztien ordezkaritza publikoa aitortu beharko dio, hala zehazten diren esparruetan.

Laugarrenik, gure ustez, ondo argitu behar da *Foru Arauaren proiektuko* 21. artikulua idatzera –“konturako aurrerakinak” arautzen dituen artikulua–; hain zuzen ere, argi zehaztu behar da tokiko erakundeek eskubidea dutela mota horretako aurrerakinak eskatzeko. Azken batean, *Foru Arauak* berariaz jaso behar du gertaera hori, eta ez Aldundiak aurrerakin horiek baimentzeko ahalmena duen edo ez duen. Horrez gain, gure iritziz, ezinbestez argitu behar dira zein diren mota horretako aurrerakinetan eman daitezken gehienezko baimen-mugak. Ildo horretan, aditzera eman nahi dugu diru-horniduren guztizko zenbatekoaren %5ek bat etorri behar duela FOFEL funtsaren urteko hornidurarekin. Bestalde, banan-banan jokatu beharko litzateke tokiko erakunde bakoitzarekin. Izan ere, horrela jokatu ezean, Vitoria-Gasteiz hiriak aurrerakina

eskatzen badu, oso urria izango da gainerako tokiko erakundeek erabiltzeko geratuko den soberakina.

Azkenik, mahai honek eskaini digun aukeraz baliatuz, aditzera eman nahi dugu oso kezkatuta gaudela Arabako Foru Aldundiak aurrekontuen arlo ekonomikoko aholkularitza eta osoko laguntza emanez Arabako tokiko erakundeei egiten dien zerbitzuaren jarraipenarekin –Vitoria-Gasteiz, Amurrio eta Laudioko udalak alde batera utzita–. Zerbitzu hori oso ondo balioetsita dago udalerri guztietan. Horrenbestez, EUDELen Arabako Lurralde Batzorde gisa, Foru Aldundiaren Toki Administrazioako Sailari proposamena aurkeztuko diogu elkarrizketarako mahai bat osatzeko, eta mahai horretan gaia aztertzeko, hari buruzko behin betiko erabakirik hartu aurretik, bi aldeentzat ona izango den irtenbidea adosteko.